

# EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR 2026 PROGRAMA. A MODALITATEA)

## **Deialdiaren xedea:**

Laguntzak ematea beka aplikatzen den zentroetan ez beste batzuetan doktorego aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntza bidean dauden ikertzaileek.

## **Onuradunak:**

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Doktore ez diren Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretzaaurreko 2024-2025 programaren onuradun direnek eskatu ahal izango dituzte laguntzok. Laguntza horiek lortu ahal izateko, ezinbestekoa da prestakuntzan ari diren ikertzaileak jardunean egotea eta laguntzaren lehen hiru urteetan izatea.

## **Diru laguntzen ezaugarriak:**

Egonaldiak 2026. urtean hasi beharko dira.

Laguntzak eska daitezke **120 eta 180 egun arteko egonaldi bakarra** egin ahal izateko, atzerriko unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I +G+b-ren esparruan diharduten enpresetan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrri batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar.

## **Eskaerak aurkezteko epea:**

**2025/11/24-2025/12/23**

**GARRANTZITSUA:** eskatzaileek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean.

## **Eskaera aurkezteko era:**

Eusko                                      Jaurlaritzaren                                      Egoitza                                      Elektronikoan

[https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2026/egonlabur\\_2026/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2026/egonlabur_2026/web01-tramite/eu/)

telematikoki [eskuragarri egongo den inprimakiaren](#) bitartez baizik ezingo da egin eskabidea. Eskabideari atxikitako dokumentuak harekin batera bidali beharko dira, aplikazio elektronikoaren bitartez.

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da.

Behin eskabide telematikoa erabat bete denean eta, aplikazioaren bitartez, artikuluhonen 5. oinarriko 4. atalean adierazitako dokumentuak erantsi direnean, eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesua gauza dezake, Egoitza Elektronikoak onartzen dituen sinadura elektronikoaren sistemetako edozeinen bidez.

Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuen erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoa bete eta erregistratutako eskabiderik.

**GARRANTZITSUA:** eskaera hau aurkezteko ez da behar UPV/EHUko Ikerketa errektoreordearen sinadura.

**Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza): [zientzia.ikerketa@euskadi.eus](mailto:zientzia.ikerketa@euskadi.eus)**